



# AUMATEGI

**“Demokrazia batean adostasuna ez da funtsezkoa;  
partaidetza bai”**

## BARRUNDIAKO EZKER ABERTZALEAREN BALANTZEA

Legegintzaldiaren erdia igaro da, dagoeneko, eta, iaz bezala, udal-balantze xume hau aurkezten dizuegu, 2008ko irailetik 2009ko irailera artekoa.

Egoera aztertuta, bi gauza dira deigarriak gure udalean:

⇒ Alde batetik, EAJko udal-taldeko kideen jarrera, ez baitute ezker abertzaleko zinegotziek aurkeztutako ia proposamen bakar bat ere onartu. Horri, sortu den egoera gainerratu behar zaio. Izan ere, gobernu-taldean badira zinegotzi batzuk urteetan zehar udalean nahi dutena egitera ohitu direnak, ez baitzegoen oposizio-talde sendorik - egiten dena kontrolatzen duena eta, tratatutako gai askotan, Barrundiaren mesederako alterna-

tibak aurkeztu dituenak - . Ikusitakoak ikusita, pentsa liteke ez dakitela edo ezinezkoa zaiela beren jarrerak defendatzea elkarrizketaren bidez eta ideiak aurrez aurre jarritz.

⇒ Bestalde, begien bistakoa da udaleko gai batzuek ez dutela aurrera egiten. Blokeo hori ez litzateke izan behar borondatezazagatik edo kudeatzeko gaitasun-ezagatik. Hor ditugu web-orria, etxebizitza-politika, etab.

Hemen azaltzen dizkizuegu egindako hainbat eta hainbat proposamen - beti Herri Programa abiapuntutzat hartuta - eta ezker abertzaleak Barrundiako Udalean egindako jarduerak eta agertutako iritziak, eta lortutako emaitzak:

### INFORMAZIOA

◆ Udalerriko web-orria: babestu genuen eta behin eta berriro esan dugu egiteko baldin eta Barrundiako administrazio-batzordeetarako ere balio badu, herritarrei zerbitzua emateko bada eta parte hartzeko aukera ematen bazaie eta euskararen erabilera eta normalizazioa bultzatzeko bada. -

#### BLOKEATUTA-

◆ Udal-informazioko aldizkaria: zuzenketa bat aurkeztu genuen aurrekontuetan, udalaren informazio-aldizkaria ateratzeko dirua gorde zedin. -UKATUA-

◆ Soldatak eta dietak: alkateak eta zinegotziek udaletik kobratu dutena publiko egitea proposatu dugu. -ONARTUA- Informazio hori zabaltzea eta kobratutako dieten justifikazioa jendaurrean jartzea ere proposatu dugu. -UKATUA-

### HEZKUNTZA

◆ Haur-eskola Barrundian: aurrekontuetan zuzenketa bat proposatu genuen haur-eskola edo haurtzaindegi baten bideragarritasuna aztertzeko diruzukidura sartzeko -UKATUA-. Geroago, abuztuan, haur-eskola bat sortzea onartu da aho batez.

◆ Euskara hezkuntzan: mozio bat aurkeztu genuen D ereduaren eta euskaldunduko duen eskola baten alde; baita udalak bere hezkuntza-ekimenetan euskarazko eskaintza berma dezan ere -UKATUA-. EAJko taldeak mozio alternatiboa aurkeztu zuen, udalak “arreta berezia jarriko duela eta euskararen presentzia eta erabilera sustatuko dituela” zioena.

### GAZTERIA

◆ Gazte Eguna: aurrekontuetan zuzenketa bat proposatu genuen Gazte Eguneko gastuetarako partida 4.000 eurotik 5.000ra igotzeko -UKATUA-

## PARTE HARTZEA

◆ Osoko bilkuren maiztasuna: EAJren erabakiz, hilabete eta erdiro egin beharrean, hiru hilabetero egitera pasatu zen. Gure proposamena ordura arte bezala jarraitzea izan zen edo, gehienez ere, bi hilabetero egitea. Gaur egun, begien bistakoa da osoko bilkurak maizago egin behar direla.

◆ Osoko bilkurak grabatzea: araudi bat proposatu dugu, guztiz egina, desadostasunak saihesteko eta aktak errazago idatzi ahal izateko. **-UKATUA-**

◆ Proposamen eta mozio alternatiboak: Proposatu genuen beste udal-taldeari behar besteko aurrerapenarekin aurkeztea **-ONARTUA-** Baina EAJko taldeak ez du betetzen.

◆ Herritarrek parte hartzeko sistema: **BAKEAZ** enpresak herritarrek parte hartzeko sistema bat abiarazi zuen. Gaur egun, ez dakigu martxan jarraitzen duen edo baztertu egin den.

◆ Kexa eta iradokizunetarako ontzia: kexa eta iradokizunetarako ontzi bat jartzea proposatu dugu **-ONARTUA-** Hori arautzeko bozketan, ezker abertzalea abstenitu egin zen, sinatu gabeko kexa edo iradokizunik aurkezteko aukera onartu ez zelako.

## ETXEBIZITZA

◆ Etxebizitza-beharrei buruzko errolda: ezker abertzaleko ordezkariak behin eta berriro eskatu arren, oraindik ez da egin etxebizitza-beharrei buruzko inkesta edo erroldarik, eta ez da etxebizitza-politikarik egiten. **-BLOKEATUTA-**

fase honetarako, udalak finantzatutako portzentajea % 10etik % 20ra igo da, ezker abertzaleko ordezkariak lehenago proposatu zuten bezala.

◆ Toki-entitateen finantziazioa: ezker abertzaleak proposamen bat aurkeztu zuen foru aldundiari finantziazio nahikoa eta bidezkoa eskatzeko Barrundiako Udalarentzat eta kontzejuentzat. Toki Entitateak Finantzatzeko Foru Funttsaren zati bat itzuli behar ez izatea eta aurreikusitako finantziarioari eustea eskatu zen. **-UKATUA-**

◆ Administrazio-batzordeentzako laguntzak: aurrekontuetan hainbat zuzenketa proposatu genituen administrazio-batzordeentzako diru-zuzkidura handitzeko; elur-garbiketa ordaintzeko; batzordeen Interneko konexioa ordaintzeko; ludotekak sortzeko; putzu septikoen garbiketarako diru-laguntza handitzeko **-UKATUA-**

◆ Administrazio-batzordeen parte-hartzea: Idazki bat aurkeztu genuen administrazio-batzordeak aintzat har zitezen aurrekontuak onartu aurretik eta Toki Inbertsiorako Estatu Funttsaren konturako obrak esleitu baino lehen. Ez zen kontuan hartu.

◆ Toki Inbertsiorako Estatu Funttsa: Diruaren erdia kontzejuen intereseko obretan eta beste erdia udalaren obretan erabiltzeko proposamena egin genuen **-UKATUA-** Azkenean, funts honetako 144.000 euroak kiroldegiaren itxitura amaitzeko eta Iduia Jauregiko iparraldeko gunea urbanizatzeko erabiliko dira.

◆ 200.000€ko aparteko dohaintza Barrundiako kontzejuentzat: EAJk proposamen bat aurkeztu zuen kontzejuei diru-laguntzak emateko inbertsio-obrak finantzatzeko. Ezker abertzaleak ongi iritzi zion proposamenari eta babestu egin zuen, nahiz eta uste zuen zenbatekoa handiagoa izan behar zela. Ondoren, arauzko oinarriak ere aho batez onartu ziren.

## GIZARTE-GAIAK

◆ Minusbaliatuei laguntza teknikoak maileguz emateko zerbitzua: zerbitzu honen araudia, ezker abertzaleak aurkeztua, onartu zen. Aho batez onartu zen, baina EAJk ez zuen onartu herritarren dohaintzak jasotzea.

◆ Kontsulta medikoaren ordutegia: udan ordutegia murriztu dutenez, Osakidetzara idazki bat bidaltzea proposatu genuen, murrizketagatik kexatzeko eta orain arteko ordutegia urte osoan mantent dadila eskatzeko **-UKATUA-**

## LEHEN SEKTOREA

◆ Udalaren larreak aprobetxatzea: **UAGARI** irizpideen balorazioa egiteko eskatzea proposatu genuen, berriro ere, larreak lehiaketara ateratzen direnerako. Irizpideak ezartzean kontzeptu sozialagoak erabiltzea ere iradoki zen, abeltzaintzako aprobetxamendu estentsiboen onura sozialen ordainetan. **-ERABAKI GABE-**

## KONTZEJUEKIKO HARREMANA

◆ Bideak konpontzeko obra: obraren bigarren

## EUSKARA

- ◆ Euskarara itzultzea: zuzenketa bat aurkeztu genuen aurrekontuetan zabalpen publikoko testuak euskarara itzultzeko partida bat sartzeko. **-ONARTUA-**
- ◆ Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana: aho batez onartu zen, baina ezker abertzaleko ordezkariak hobekuntza batzuk proposatu zituzten.
- ◆ Euskara-ikastaroak: ikasleei eta langabetuei % 100eko diru-laguntza ematea proposatu genuen, betiere, ikastaroei behar besteko probetxua ateraz gero. **-UKATUA-**
- ◆ Kultur jarduerak zabaltzea: proposamen bat aurkeztu genuen diru-laguntzak jasotzeko baldintza gisa jartzeko kultur eta kirol jardueren zabalkundearen euskara gaztelaniaren baldintza berberetan erabiltzea. **-UKATUA-**
- ◆ Euskarazko jarduerak: proposamena aurkeztu genuen euskarazko jarduerak % 100eko diru-laguntza jaso dezaten **-UKATUA-**

## KULTURA ETA KIROLAK

- ◆ Hitzarmena Aguraingo Udalarekin: proposamena hitzarmen bat egiteko eta, horrela, Aguraingo kirol-instalazioak erabili ahal izateko. **-BLOKEATUTA-**
- ◆ Kiroldegia erabiltzeko araudia: guztiz osatutako araudi bat proposatu genuen **-UKATUA-** EAJk aurkeztutako proposamen alternatiboa, oso antzekoa, onartu zen. Oraindik ez da inolako araudirik aplikatu kiroldegia erabiltzeko **-BLOKEATUTA-**
- ◆ Toponimiaren normalizazioa: aurrekontuen zuzenketa bat proposatu genuen lekuen izenak normalizatzeko azterketa bat egiteko diru-zuzkidura gordetzeko. **-UKATUA-**
- ◆ Seinaleztapenak: aurrekontuen zuzenketa bat proposatu genuen toki turistikoak seinaleztatzeko eta Barrundiako mendietan ibilbide seinaleztatuak egiteko diru-zuzkidura gordetzeko. **-UKATUA-**
- ◆ Udal-liburutegia: onartu zenean, ezker abertzalea abstenitu egin zen, EAJk liburutegia zuzenean kontratatzea onartu ez zuelako.
- ◆ Liburutegirako liburuak lagatzea: herritarrek lagatutako liburuekin funts bat eratzea proposatu zen **-ONARTUA-**

- ◆ Informazioaren banaketa: herritarrei bidalitako informazioa ele bietan jartzeko proposamena. **-ONARTUA-**
- ◆ Hizkuntza-normalkuntzako teknikaria: abuztuaren teknika berri bat hasiko da lanean. Horren kontratazioa aho batez onartu zen.

## INGURUMENA

- ◆ Garraio publikoa: aurrekontuetan zuzenketa bat aurkeztu genuen garraio publikoa erabiltzeko kanpaina bat egiteko diru-zuzkidura sartzeko. **-UKATUA-**
- ◆ Etxebizitzak eta iraunkortasuna: aurrekontuetan zuzenketa bat aurkeztu genuen euri-urak jasotzen dituzten eta energia berriztagarriak edo alternatiboak jartzen dituzten etxebizitzetako diru-laguntzak emateko diru-zuzkidura sartzeko. **-UKATUA-**
- ◆ Garroña: zentrala ixtearen alde eta energia-eredu nuklearraren aurkako proposamena **-UKATUA-** Azkenean EAJk aurkeztutako proposamena, oso antzekoa, onartu zen aho batez.
- ◆ Iturrieta-Zuhatzola goi-tentsioko linea: Barrundiatik igaroko den goi-tentsioko beste linea bat jartzearen aurka udaleko idazkariak idatzitako alegazioak aho batez onartu ziren.
- ◆ Güeñes-Itsaso goi-tentsioko linea: Eskoriatzatik eta beste herri batzuetatik zehar egin nahi duten linearen

aurkako jarrera adierazteko proposamena **-UKATUA-**.

- ◆ Transgenikoak: Barrundia transgenikorik gabeko herri izendatzeko eta horren berri herritarrei emateko proposamena **-ONARTUA-**

**Zentral olikoa**: beste jabe batzuei emandako baldintza hobeengatik ordaintzen den afektazio-kanonaren zergatiari buruzko galderaren erantzunaren zain gaude 2007tik. Berrir proposatu dugu Eólicas de Euskadiri eskatzea Barrundian kobratzen den kanona Gipuzkoan jarritako aerosorgailuek proportzioan dituzten baldintza hobeekin pareka dadila **-UKATUA-** Oraindik zain gaude.

## HIRIGINTZA

- ◆ E.L.U.ak edo makrourbanizazioak: txosten bat eskatzea proposatu genuen hirigintza-plangintzatik ELUak (lurzoru urbanizagarriak) kentzeko. **-BLOKEATUTA-**
- ◆ Herrien hazkundera: Barrundiako Udalak herriak polikiago hazteko apustua egin dezala proposatu genuen, gizarteak hazkunde hori hobeto onar dezan eta ingurumenaren aldetik jasangarriago izan dadin. **-UKATUA-** Gai honen inguruko eztabaidan, EAJko kideren batek negozioa egiteko itxaropena "eskubidetzat" jo zuen.



- ◆ Hirigintzako aprobetxamendua: ezker abertzaleko ordezkariak behin eta berriz eskatu dute “hirigintzako aprobetxamendua” balio errearen edo merkatu-balioaren arabera kobra dadila. Alkateak adierazi zuen gai honi buruzko txostena eskatuko zaiola arkitektoari. **-BLOKEATUTA-**
- ◆ Egikaritze-unitateetako hirigintza-hitzarmenak: horrelako hitzarmenen sinadura onartu zenean, ezker abertzalea abstenitu egin zen, “hirigintzako aprobetxamendua” merkatu-prezioa baino gutxiago kobratzen delako, udalaren diru-sarrerak murriztuz.
- ◆ Gainbalio-zerga: lurzoruen balioaren hazkundearen gaineko zerga ezartzeko proposamena, lurrarekiko espekulazioari aurre egiteko **-UKATUA-**.

## **BESTE GAI BATZUK**

- ◆ Axpurutik Herediarako bidea: bidearen arekak berregiteko proposamena, bide-erdian putzurik egin ez dadin eta, hartara, arriskuak saihestu daitezela **-BLOKEATUTA-**
- ◆ Agiriak erregistroa: ezker abertzalearen ekimenez, foru-aldundiarekin hitzarmen bat egitea proposatzen da agiriak erregistratzeko. Horrela, foru-aldundira bidalitako agiriak udalean erregistratu ahal izango dira eta aldeantzez. Aho batez onartu zen, baina oraindik ezin da egin.
- ◆ Iduia Jauregia: ahalik diru-laguntza gehien lortzearen alde agertu gara. Esleitzeko bozketetan eta egindako obren egiaztapenetan, ezker abertzalea abstenitu egiten da, Iduia Jauregiaren inguruko gauza guztiak eztabaidarik gabe, herritarren parte-hartzerik gabe eta EAJren iritziez bestelakoak kontuan hartu gabe egin eta egiten direlako.
- ◆ Aberri Eguna: Aberri Egunaren inguruan aurkeztutako adierazpena onartzeko proposamena. **-ONARTUA-**.  
Ikurriña: Aberri Egunean udaletxeko balkoian jartzeko proposamena **-UKATUA-**

## **ASKOTARIKO MOZIOAK**

- ◆ EAE-ANVren ilegalizazioa hauteskundeetan gure alderdia izan zenaren ilegalizazioa salatzeke moztioa **-UKATUA-**. EAJk esan zuen ez zegoela moztioaren aurka, baina ezezkoa eman zion eta beste bat aurkeztu zuen hainbat gai nahastuz.
- ◆ Atxiloketak: martxoko hauteskundeetan aurretik gertatu ziren atxiloketen aurkako eta atxilotuekiko elkartzasuna adierazteko eta aldaketa politikoaren aldeko moztioa **-UKATUA-**. EAJk moztio alternatiboa aurkeztu zuen, egoera guztietarako balio duten horietako bat.
- ◆ Palestina: Israelen Palestinan egindako sarraskiak salatzeke eta erasoak arbuiatzeko eta israeldar produktuen kontrako boikota sustatzeko **-UKATUA-**. EAJk bere moztio alternatiboa onartu zuen, Palestinarekiko elkartzasuna adieraziz.
- ◆ Nafarroako konkistaren 500. urteurrena: urte muga hori dela -eta, 1512an Nafarroa eta 1200ean Araba konkistatzaile gaztelauetatik defenditu zutenen oroitzapena eta urteurreneko ekitaldietara atxikitzea proposatzen da **-UKATUA-**.

**Bai Madrilaren hartutako erabakiengatik, bai hemen hartutakoengatik jasan behar ditugun zailtasunak gorabehera, JARRAITZEN DUGU ETA JARRAITUKO DUGU.**

Lanean jarraitzen eta jarraituko dugu Barrundiaren mesedetan eta hemen bizi eta lan egiten duten pertsona guztien alde. Informazioa ezkututzen diguten arren, zenbait proposamen eztabaidatzeko aukera ukatzen diguten arren, gure galderei sistemaz erantzuten ez dieten arren... ez diogu uko egingo ideiak aurkezteari eta irtenbidak eta alternatibak aurkezteari. Uste dugu horixe dela modurik egokiena gu isiltzeko ahaleginei erantzuteko.

**ALDAKETA POSIBLE DELA sinesten duten guztien ekarpenak eta babesak ere zinez eskertzen ditugu.**